

10.10 > 20H30  
Eglise Saint-Vincent  
Hendaye / Hendaia

11.10 > 17H  
Eglise Saint-Etienne  
Saint-Etienne-de-Baïgorry / Baigorri

# ESCALES BAROQUES

Quintette de cuivres  
et orgue

P

S

IPARRALDEKO  
ORKESTRA ORCHESTRE  
SYMPHONIQUE DU  
PAYS  
BASQUE

B



> 05 59 31 21 78 > [WWW.OSPB.EUS](http://WWW.OSPB.EUS)



# Partaideak:

Lagunak Hendaiako Saint-Vincent-eko organoa

Baïgorry-ren Organoaren Lagunen Elkartea



Saint-Etienne  
de Baïgorry



Obren aurkezlea : Julie Charles, musika-kultura irakaslea

Egitarauaren finkatzailea :

Iparraldeko orkestraren kultura eta komunikazioa zerbitzua

Orkestraren ekoizpen arduraduna:

Iparraldeko orkestraren teknika zerbitzua

Itzultzailea : Txomin Urriza Luro

**A**niztasun handiko kontzertua eta mende, genero eta herrialde desberdinetan murgiltzen gaituen musika-bidaia da hau. Iparraldeko Orkestraren kobre kintetoak eta Philippe Mendes-en organoak obra ezagunak moldatu eta entzulea musika estilo batetik bestera daramate, haietan opera barrokoa, film musika, Espainiako sonata eta Italiako kontzertua!  
**Musikariak** : Philippe Mendes (organoa), David Rachet eta Stéphane Goueytes (tronpetak), François Gonzales (tronboia), Gérard Portellano (tuba), Arnaud Guicherd (tronpa)

## **Arte eta Kultura Heziketa (AKH)**

Kontzertuak baino lehen, musikariek bi pedagogia-saio animatuko dituzte Baigorriko Donostei eskolako ikasgeletan. Orduan, haurrei musika tresnak ezagutaraziko dizkiete, baita haien egin-moldeak eta soinuen aberastasuna ere. Ikuspegi pedagogiko egokiarekin, artista-irakasleek ingurumen desberdinetako jendeak kausituko dituzte eta beren zaletasuna transmitituko diete. Izan ere, Iparraldeko Orkestraren proiektuaren garapen ardatz nagusi bat da hau, bitartekaritza eta AKH-eko ekintzek denboraldiko kontzertu bakoitza sustatzen baitute.

## **EGITARAUA**

**André Campra**

*Rigaudon*

**Astor Piazzolla**

*Tanti anni prima «Ave maria»*

tronpeta, tronpa, tronboia eta organoarekin

**Georg Friedrich Haendel**

*Musique pour les feux d'artifices royaux*

*(Ouverture – Réjouissance – Menuet)*

**Padre Soler**

*25. sonata, organoarekin*

**Antonio Vivaldi**

*Concerto per due trombe e organo in Do maggiore RV 537*

*(Obertura – Bozkarioa – Minueta)*

**Johann Gottfried Walther**

*Concerto per organo in Si minore (Vivaldiren arabera, RV 275)*

*(Vivace – Adagio – Allegro)*

## KONTZERTUAREN AURKEZPENA

**K**ontzertua André Campra (1660-1744) Rigaudon obrarekin hasten da: parisen 1712an sortutako *Idoménée* operatik ateratako zatia eta erritmo biziko dantza herrikoa da.

**Astor Piazzolla** (1921-1992) *Nuevo Tango* musikari hertsiki loturiko izena eta musikagile argentinar famatua da. Film musika anitz idatzi zituen ere. *Tanti anni prima (Ave Maria)* 1984an Marco Bellochiok Claudia Cardinale eta Marcello Mastroianni aktoreekin egindako *Enrico IV* filmaren soinu bandaren kantu bat da.

Film hura Pirandelloren antzerki lan baten egokitzea da. *Tanti anni kantua* filmaren hastapenetik –kredituetatik– entzuten da, Claudia Cardinaleren pertsonaiarekin erlazionatzen da eta bere edertasun melodikoagatik ezagutzen da.

*Music for the Royal Fireworks* **Georg Friedrich Haendel** (1685-1759) obra ezagunenetakik bat da. Haendel, ingeles herritartasuna hartu zuen konpositore alemana zen. 1749an idatzi zuen hedadura handiko obra ospetsu hura, Austriako ondorengotza-gerrari amaiera eman zion bake ituna ospatzeko. Bost mugimenduetarik hiru interpretatuko dira kontzertu honetan: *Obertura* famatua, *Bozkario* bizi-bizia eta bukaerako *Minuet* dotorea..

Klabezinista, organista eta elizgizona zen **Antonio Soler** (1729-1783), Padre Soler izenez ezagunagoa. XVIII. mendeko Espainiako konpositore nagusietarik bat da. Jatorriz katalana zen. 1752an apez ordenatua izan zen, eta bizi osoa Madrildik hurbil pasa zuen, Escurialeko monasterioan. Organista eta konpositore gisa zuen talentuari esker, Escurialeko kapera-maisua izendatu zuten 1757an. Sorkuntza-lan handia egin zuen, eta lan ohargarria egin zuen erlisionearen arloan: 13 *magnificata*, 5 motete, 4 salbe, 9 meza, 60 salmo... 1766an, Karlos III.a Espainiako erregeak

Gabriel infantearen –orduan hamalau urteko bere seme musika zale errabiatuaren– musika hezitzaile izatea galdegin zion. Padre Soler-ek harentzat klabezinerako ehun eta berrogeita hamar *sonata* konposatu zituen. Kontzertu honetan organoan hasieratik bukaerara interpretatzen den 25. sonata ekoizpen zabal honen kanturik ederrenetarik bat da.

Biolinista birtuoso, irakaslea, konpositorea, orkestra-zuzendaria, antzerki-zuzendaria eta operako inpresarioa zen **Antonio Vivaldi** (1678-1741). Bere garaian, Veneziako musikari guzien artean, hura zen gehien miresten zena. Bakarlarientzako kontzertuaren ordezkari handia izan zen Vivaldi, eta bostehun inguru konposatu zituen hainbat instrumenturako: biolina, fagota, biolontxelo, tronpa, mandolina... Haren helburua zen Pietàko orkestrako musikari bikainak nabarmentzea. Izan ere, Vivaldi Veniziako orkestra honen zuzendaria zen.

*Concerto per due trombe e organo in Do maggiore RV. 537* obrak, ohikoa den moduan, hiru mugimendu ditu: *Allegro – Largo – Allegro*. Erdiko largoan ez dago tronpetarik; baina, hasiera eta bukaerako mugimenduetan, aldiz, birtuosismo osoa erakusten dute. Bi tronpetak hein berean tratatuak dira; batzuetan hiru notaren tartean jotzen dute, besteetan elkarrekin ari dira galdera eta erantzun joko erakargarri baten bidez.

Vivaldik askotariko instrumentu bakarlariak ohoretan jarri zituen bere concerto ugarietan; baina, musikagile honek bere musika tresnari, biolinari, eskaini zizkion gehienak, hark interpretatu ahal izateko. Hasiera batean biolinerako sortutako Vivaldiren *RV.275 kontzertua* **Johann Gottfried Walther** (1684-1748) konpositore, organo joile eta teorialari alemanak organorako egindako transkripzio batean interpretatuko da. Kontzertu italiarren teklaturako transkripzioa Alemaniako berezko ohitura izan zen XVIII. mendean. **Johann Gottfried Walther** eta J.S. Bachen izan ziren orduko ohitura horren ordezkari nagusiak

# Iparraldeko orkestraren kobre kintettoa



**K**obre kintettoa Iparraldeko kontserbatorioko irakasleek osatzen dute. OSPB-IO-ko musikariak dira denak. Badu kasik 20 urte kontzertuak jotzen dituztela Euskal Herrian eta Landesetan. Talde aberats eta homogeneo horrek askotariko errepertorioa du, eta, ondorioz,

musika estilo desberdinak ezagutzeko aukera ematen du, hala nola klasikoa, garaikidea, barrokoa, jazz, sorkuntzak eta moldaketak. Kintettoa berez kontserbatorioaren tresna pedagogikoa ere bada, eta hedapena eta transmisioa uztartzen ditu.

**M**usikariak: David Rachet eta Stéphane Goueytes (tronpetak), Jérôme Capdpont (tronboia) – kontzertu honetan François Gonzales-ek ordezkaturik –, Gérard Portellano (tuba), Arnaud Guicherd (tronpa).

# Philippe Mendes

## Organo joilea eta koru zuzendaria



**B**aionan sortu zen, 1970ean. Iparraldeko kontserbatorioan ikasi zuen, eta han eskuratu zituen musika talde, analisi eta ganbera musikako lehen sariak eta Bernadette Carrauren klaseetako organoan hobetzeko saria. Klabezina ikasi zuen J.W. Jansen-ekin, Tolosa Okzitanian. Orkestra zuzendaritza ikasi zuen ere, Robert Delcroix-ekin; eta koru zuzendaritza ere, Éliane Lavail eta Pascale Verdier-ekin. Michel-Marc Gervais-ekin goi-mailako formakuntza segitu zuen, eta, ondotik, Bernard Tétuk zuzendutako formatzaile izateko formakuntza. Orduan, koru zuzendari handien irakaskuntza jaso zuen: Nicole Corti (Britten-Spirito abesbatza), Michel Laplénie (Ensemble Sagittarius), Geoffroy Jourdain (Les Cris de Paris). 1998an, Angeluko À Cœur Joie abesbatza zuzendu zuen; eta 1999an, Vocanti abesbatza sortu zuen. 2013an, Ascesis abesbatza sortu zuen, kantari aditu eta profesionalekin. 2018an sortutako Euskal Herriko Ahots Akademiaren eta Koru Zuzendaritzaren sortzaileetarik bat da. Koru zuzendaritza irakaslea da han.

Ahots Taldeen Zuzendaritzako Estatu Diploma eta Musika Talde Gaitasun Agiria ditu. Eta bi arlo horiek irakasten ditu Iparraldeko Kontserbatorioan.

Philippe Mendes Baionako Saint-Amand parrokian organo joilea izan zen, 20 urtez. Eskualdeko ahots edo instrumentu taldeek harekin lan egitea eskatzen diote erregulariki

# MASTER !

## BEETHOVEN

**Azaroak 7 larunbata**

> 20:30

Quintaou antzokia, Angelu

**Azaroak 8 igandea**

> 16:30

Mendeala gela, Hazparne

Biolin bakarlaria: Marina Chiche

Zuzendaria: Victorien Vanoosten

## MILONGA

**Azaroak 20 ostirala**

> 20:30

Beheria antzokia, Bidarte

**Azaroak 21 larunbata**

Le Vauban zinema gela,

Donibane Garazi

Bakarlari eta moldatzailea:

Philippe de Ezcurra

## LA MUSIQUE FAIT SON CINEMA

**Azaroak 12 larunbata**

> 20:30

Saint-Louis zinema gela,

Donapaleu

**Abenduak 13 igandea**

> 17:00

Apollo gela, Bokale

accordes.com taldea

## ARGIBIDEAK ETA TXARTELDEGIA

> 05 59 31 21 78

WWW.OSPB.EUS



Orchestre Symphonique  
du Pays Basque  
Iparraldeko Orkestra

